

## ADELPRISE (Lehen eta Bigarren mailako Linfedemek Kaltetutakoek Elkarteak)



Vicente Abreu Margolariaren kalea, 7  
945 22 60 61 / 600 555 105  
[adelprisevit@gmail.com](mailto:adelprisevit@gmail.com)  
<https://www.euskoadelprise.es/eu/hasiera/>

ADELPRISE patologia linfatikoen eta horien tratamenduen ikerketara bideratutako lan apurra aldarrikatzeko nahitik sortu zen. Elkarteak sistema linfatikoko edozein gaixotasun duten pertsonak artatzen ditu (linfedema, flebedema eta lipedema). Linfedema gorputzeko atal bati edo batzuei eragiten dien hantura kronikoa da. Modu progresiboan handitzen den edema forman agertzen da, zelulen arteko eremuan eta ehunetan likidoa (linfa) metatzen delako, eta likido horrek ezin duela zirkulatu sistema linfatikoak huts egiten duelako.

**ADELPRISE** saiatzen da, lehenik eta behin, gaixotasun horiek dituzten pertsonak ezagutu ditzaten eta lanean has daitezten beren egoera fisikoa hobetzeko, eta gaixotasunak ahalik eta gutxien egin dezan aurrera; horrela, gaixotasun horien garapenak eragiten dituen desgaitasun handiak saihestu daitezke, esaterako elefantitisa. Bigarrenik, informazioa eman behar zaie, kaltetutako pertsonari ez ezik, intereseko kolektibo guztiei ere: ikasleei, ortopediei, osasun-zentroei, gizarte-langileei, fisioterapeutei, medikuei eta abarri, beren lanbideak gorabehera, ez baitute patologia horien berri.

Antolatzen dituzten jardueren artean, *aquagym*, yoga, zoru pelbikoa indartzea eta Linfedemaren Munduko Egunaren antolaketa dira aipagarrienak. Linfologiaren Nazioarteko Biltzar bat ere egiten dute, linfedemaren eta lipedemaren arloko azken aurrerapen

zientifikoei buruz jarduteko.

## **Fundación Vital Fundazioaren lankidetz**

Fundazioa eta ADELPRISE kontu puntualetan elkarlanean jardun ondoren (2005ean "Linfedemari buruzko I. Jardunaldiak" esaterako), Vital Fundazioaren laguntza areagotu egin zen 2017tik aurrera, urteko hitzarmenak sinatuz eta Fundazioak egindako laguntza-deialdietara elkarrekin aurkeztutako proposamenei erantzunez.

Honako programa espezifikoa hauei eman diegu laguntza: "Kaltetuentzako informazioa, aholkularitza eta arreta integrala", "Komunikazio- eta sentsibilizazio-programa", "Lehen mailako linfedema, bigarren mailakoa, lipedema eta flebedema duten pertsonentzako errehabilitazio-programa", "Pazienteei eta haien senideei arreta integrala emateko programa" eta abar.